

HATS BERRI



2026

Nouvel Élan

*Biharko Senpere, elgarrekin eraiki dezagun
Ensemble, construisons le Saint-Pée-sur-Nivelle de demain*



<https://hatsberri-nouvelelan.org/eu/harrea>



Gure proiektua atzemateko, sare sozialetan segi gaitzazue

Retrouvez notre projet, Suivez-nous sur les réseaux sociaux

Gure programa ikusteko eskaneatu

Scannez pour découvrir notre programme

Elections municipales et communautaires des 15 et 22 mars 2026, commune de Saint Pée sur Nivelle

2026ko martxoaren 15 eta 22ko herri eta elkargo hauteskundeak, SENPERE



28 eta 69 urte arteko 31 emazte eta gizonez osatu zerrenda, energia, esperientzia eta ibilbideen aniztasuna uztartuz. Gure taldea orekatua, plurala eta tokiko errealitateetatik hurbil da, eta eragile ekonomikoek, zerbitzu publikoko eta elkarteetako profesionalek, adituek eta herritar engaiatuek osatzen dute. Prest gara aterabide zehatzak eta egunerokoan egokituak proposatzeko. Gure anbizio bakarra: Senpertarretaz hurbil den Herriko Etxea, entzute, gardentasun eta kontzertazioan oinarritua, herria bide onetik eramateko gai dena kudeaketa zorrotz eta lehentasun argien bidez. Proiektu egingarriak eta zentzuzkoak egiteko engaiamendua hartzen dugu, epe luzerako ikuspegia lehenetsiz, kargualdi bakarrera mugatu ordez.

Hona gure lehentasunak:

1. LABORANTZA-EKONOMIA-OIHANGINTZA

- Tokiko laborantza bizi, berritzaile eta iraunkor bat sustengatu, herriaren ekonomiaren eta nortasunaren motorra baita.

. Ekintza giltzarriak:

- Zirkuitu motzak bultzatu gure elikadura autonomiaren defendatzeko.
- Laborantza lurra babestu eta diren etxaldeak lagundu.
- Landa eragile guziendako proiektu berritzaile eta erabilpen anitzekoak lagundu.
- Etxaldeek autonomia sustatu, bereziki bazka arloan.
- Transmisioaren gaiari buruzko sentsibilizazio ekintzak piztu eta bultzatu, laborantza etxaldeek segida segurtatzeko eta, horrela, laborantza lurren elikatze bokazioari atxikitzeko.
- Tokiko enpresak lagundu eta eremu ekonomiko berriendako lurra identifikatu.
- Birkokatze ekonomikoa sustatu EUSKO tokiko monetaren bidez.
- Oihan berritze plana segitu ONFarekin, trantsizio ekologiko iraunkor baten alde.



- Zuekin:

biztanleen, merkatarien, laborarien, enpresarien eta zerbitzu publikoen arteko trukaketak indartuko ditugu.

2. HERRIKO FINANTZAK

- Herriaren finantza suspertze iraunkorra segurtatu, epe luzeko ikuspegi batean oinarrituz, karguen kontrola, ondare publikoaren garapena eta berritzea eta lurralde elkartasuna barne hartuz.

. Ekintza giltzarriak:

- Finantza suspertzea: gastuen arrazionalizatzea eta gure proiektuen laguntzeko laguntza, dirulaguntza eta partaidetzen bilaketa aktiboa.
- Gastuak kontrolatu, bereziki energetikoak, eta herriko baliabideen erabilpena arrazionalizatzea.
- Herriko ondasunak mantendu eta segitu, obren egokitasun tekniko eta finantzarioa zainduz.
- Herri proiektu integral bat zehaztu, maila guzietako laguntza, diru laguntza eta partaidetzak galdetzeko.
- Eraikuntzen eraginkortasun energetikoa optimizatu haien diseinutik.



- Zuekin:


Herriaren antolaketa proiektu orokor bat egingen dugu.

3. ENERGIA NEURRITASUNA – GARAPEN IRAUNKORRA BIZI INGURUMENA

- Herri neurridun, berdeago, ekologikoago eta bizitzeko atseginoago baten alde jokatu.

. Ekintza giltzarriak:

- "Trantsizio ekologiko" erreferente bat izendatu.
- Argiteria publikoa modernizatu LED-ean, kontsumoa eta eragozpenak murrizteko.
- Herriko eraikinen energia errendimendua hobetu.
- Herriko eraikuntzen berotze sistemak modernizatu.
- Panel fotovoltaiakoak pausatu autokontsumorako edo elektrizitate birsalmenta partzialerako.
- Eremu publikoak zaindu, gure herriak itxura duin eta abegitsua har dezan.
- Lehentasunez, gure herriaren garbitasuna, artatze erregularra eta edertzea segurtatu.
- Berdeguneak modu arrazoituan kudeatu eta herria loratu.
- Mugikortasun eztien garapena segitu, auzo ezberdinak lotzeko.
- Bizikletaren erabilpena bultzatu segurtasunean eta jokabide onetan heziz.
- Eraikinen eta bideen irisgarritasuna bermatu.
- Herriko ekoizpenak baloratu herriko egitasmoetan.



- Zuekin:

Soiltasun energetiko plan bat egingen dugu.

4. KIROLA ETA ELKARTEAK

- Herri bizi, lagunkoi eta dinamikoa sustengatu.

. Ekintza giltzarriak:

- Tokiko besta komite eta animazioak lagundu (lhauteri, Olentzero, ikusgarriak...).
- Existitzen diren kirol ekipamenduak mantendu eta hobetu.
- Beharrezkoak bilakatu diren kirol eta elkarte ekipamendu egituratzaile berriak zehaztu.
- Kirol zelaiaeren proiektua garatu finantzamendu eta ekimen berriekin.
- Denendako eskuragarri eta egokituak diren ekipamenduak proposatu, gazte baita adinekoentzat ere.



- Zuekin:

Elkarrietzeta erregular bat atxikiko dugu zure beharrak hobeki ulertzeko eta asetzeko.



5. ETXEBIZITZA

- Bakoitzari herrian merezi duen bezala bizitzen ahalbidetzea.

. Ekintza giltzarriak:

- Etxebizitza eskaerak herriko prozedura baten bidez bildu.
- Etxebizitza sozialen eskatzaileei lagundu eskaera txostenen muntaketan.
- Hutsik diren etxebizitzaren jabeak zaharberritzearen profesionalekin harremanetan ezarri, bizitegi horiek urteko alokatze zirkuituan emateko.
- Informazio momentuak antolatu, biztanleentzat, etxebizitzaren gaiak (ondare higiezinaren transmisioaz, adibidez).
- SRU helburuak eta heineratze egutegia berriz aztertu, Senpereko bizitegiaren diagnostiko oso baten ondotik.
- Geroko belaunaldiendako bizitegiendako lur erreserbak osatu



- Zuekin:


Senpere eta Euskal Herriko etxebizitzari buruz gogoetak eginen ditugu, beharrezkoak diren bilakaera legegile eta fiskalak sustatuz.

6. KULTURA – ONDAREA

- Kultura bizi eta eskuragarri bat garatu lotura sozialaren indartzeko

. Ekintza giltzarriak:

- Hezkuntza artistiko eta kulturala sustengatu, haurtzarotik helduarora.
- Kultura solidario eta arduratsu baten alde egin, denentzat eskuragarria.
- Gaztetasuna eta sormena baloratu.
- Kultura sustatu eremu publikoan eta harresietatik kanpo.
- Tokiko artistak lagundu eta sustatu.
- Kultur politika partekatua eta parte hartzailea eraiki.



- Zuekin:

Kultur ondarea balioetsiko dugu eta Altsasu herriarekiko senidetzea berpiztuko dugu.

7. EUSKARA

- Euskara garatu: aberastasun kolektibo bat baita.

. Ekintza giltzarriak:

- Haur eta helduentzako ikaskuntza eta transmisioa sostengatu.
- Komunikazio elebiduna segurtatu (frantsesa/euskara).
- Hizkuntzaren eguneroko erabilpena eta balorizazioa sustatu.
- Hizkuntza politika orokor bat egin, biztanle guziendako, euskaldun eta ez euskaldun.

- Zuekin:

herriko etxeaz kanpoko batzorde bat sortuko dugu euskararen inguruan.




8. HAURTZAROA-GAZTAROA-HERRITARTASUNA-ELKARTASUNA

- Egin ahalak egin Senpere, babesten, laguntzen eta guzientzat komunikatzenduen herria izan dadin.

. Ekintza giltzarriak:

- GEUZaren ekintzak dinamizatu gazte, familia, adineko eta desgaitasun egoeran diren pertsonentzat.
- Existitzen diren zerbitzu eta proiektuak garatu eta ezagutarazi.
- Zaurgarritasun handiko pertsonak sustengatu eta isolamenduaren aurka borrokatu.
- Gazteen Herriko Kontseilua (GHK) sortu.
- Adinekoen poloa garatu eta belaunaldien arteko ekitaldiak antolatu.
- Permanentzia sozial eta juridikoak eskaini.
- Belaunaldien arteko jantoki bat esperimentatu.
- "Adinekoen laguna" labelarekin bat egin lotura soziala indartzeko.



- Zuekin:

belaunaldien arteko
gizarte zentro baten
sortzeari buruz
hausnartuko dugu.





*Biharko Senpere,
elgarrekin eraiki
dezagun*

*Ensemble, construisons
le Saint Pée sur Nivelle
de demain*



1- JAUREGUY Christophe
57 ans, Entrepreneur
57 urte, Enpresaburu



2- PERUGORRIA Christine
51 ans, Responsable clientèle
51 urte, Bezero arduradun



3- IRUBETAGOYENA Pascal
44 ans, Enseignant
44 urte, Irakasle



4- MUNDUTEGUY LARRAMENDY Céline
46 ans, Comptable
46 urte, Kondulari



5- BEHASTEGUY Peio
43 ans, Professeur des écoles
43 urte, Irakasle



6- MAQUIRRIAIN Cécile
38 ans, Agent comptable
38 urte, Kondulari



7- LARROQUE Manuel
49 ans, Technicien territorial
49 urte, Lurralde teknikari



8- POURTEAU ZAMORA Nathalie
48 urte, Employée
48 ans, Enplegatu



9- JORAJURIA Jean-Bernard
69 ans, Retraité
69 urte, Erretretadun



10- HARAMBOURE JOANA
44 ans, Employée fonction publique hospitalière
44 urte, Ospitale publikoko langilea



11- FALIÈRE Pierre
64 ans, Retraité
64 urte, Erretretadun



12- BERHO Manon
28 ans, Employée
28 urte, Enplegatu



13- DUHAU Pascal
56 ans, Enseignant
56 urte, Irakasle



14- HAROÇARENÉ Maider
48 ans, Secrétaire
48 urte, Idazkari



15- ITURRIA Philippe
55 ans, Aide soignant
55 urte, Zaintzailea



16- LALAURETTE ZAMORA Irène
65 ans, Retraité
65 urte, Erretretadun



17- CARRICABURU Txomin
42 ans, Maître d'œuvre
42 urte, Obralaria



18- MAILLET Caroline
62 ans, Retraité
62 urte, Erretretadun



19- DORRATCAGUE Franck
52 ans, Agriculteur
52 urte, Laboraria



20- ETCHEVERRY Christine
52 ans, Directrice adjointe
52 urte, Zuzendariordea



21- AZZOLINO Hervé
58 ans, Technicien territorial
58 urte, Lurralde teknikaria



22- PEREZ Maite
46 ans, Conseillère emploi formation
46 urte, Enplegurako prestakuntzako aholkularia



23- CARRILLO Jérôme
39 ans, Enseignant
39 urte, Irakasle



24- MILHÉ Laetitia
39 ans, Éducatrice de jeunes enfants
39 urte, Lehen haurtzaroko hezitzaile



25- BERHO Pantxo
66 ans, Retraité
66 urte, Erretretadun



26- SALAGNAC Marie
45 ans, Responsable administrative
45 urte, Kudeatzaile administratiboa



27- LANNETTE Gabriel
30 ans, Kinésithérapeute
30 urte, Hezur artatzaile



28- DOLOSOR Béatrice Anne
51 ans, Artisan modéliste
51 urte, Modelo artisaua



29- BASTRES Pierre
47 ans, Consultant formateur
47 ans, Prestatzaile aholkularia



30- IDIART Angéline
32 ans, Employée
32 urte, Langilea



31- ETCHEVERRY Sébastien
43 ans, Charpentier
43 urte, Teilatu egilea